

HASIERATIK SEGURU



SEGURIDAD DESDE EL COMIENZO

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Argitaraldia: 1.a 2016ko otsaila
Ale-kopurua: 20.000 ale

© EAEko Administrazioa -
Segurtasun Saila

Internet: www.euskadi.eus/trafikoa
Diseinua: Diagonal Comunicación 360º
Inprimaketa: Mediaprint
LG: SS 178-2016



HASIERATIK SEGURU



AURKIBIDEA

0.- AURKEZPENA	5
1.- INFORMATU: ADINGABEAK GARRAIATZEKO ARAUDIA	
135 cm edo gutxiago neurtzen duten adingabeak	6
135 cm baino gehiago neurtzen duten adingabeak	7
2.- AUKERATU: AULKI MOTAK	
Aulkiak pisuaren arabera	8
0-13 Kg. (0 eta 0+ taldeak)	9
9-18 Kg. (1. taldea)	10
15-36 Kg. (2. eta 3. taldeak)	11
Aulkiak altueraren arabera	12
3.- EUSTEKO SISTEMAK	
Isofix	13
Top Tether	15
Eusteko hanka	16
4.- HOMOLOGAZIOAK	
Homologazio-etiketak	17
ECE R44/04	18
ECE R129 (I-Size)	19
5.- OHIKO GALDERAK	
Ibilgailu partikularrak	20
Eskola-garraioa	23
Taxiak	25
Haurdunaldia eta segurtasun-uhala	26

AURKEZPENA

Helduek bezalaxe, haurrek ere badute bidaiatzerakoan segurtasun-gailuak erabiltzeko eskubidea, lesioak saihesteko istripua izanez gero. Ibilgailuetako segurtasun-sistema gehienak (uhalak, airbag-ak, buru-euskarriak...) ez daude haurrentzako pentsatuta edo diseinatuta, eta, horregatik, oso garrantzitsua da haur guztiek erabiltzea haurrak lotzeko sistema (HLS) ibilgailu batean daudenean. Horrela, % 40 gutxitzen dira, istripua izatekotan, heriotza eragiten duten lesioak, eta % 70, berriz, zauri larriak izateko arriskua.

Askotan, haurrak lotzeko sistema bat erosterakoan, horrelako zalantzak datozkigu burura: Nola jar dezaket edo nola jarri behar dut haurra? HLS guztiak berdinak dira? Zer da ISOFIX? Eta I-Size aulkiak? Eta segurtasun-homologazioak... zer dira, autoetarako, HLSetarako edota bietarako?

Dokumentu honen helburua da zuen haurarentzako HLSrik onena hautatzen laguntzea. Horretarako, leku batetik bestera mugitzeko erabiliko duzun ibilgailuaren ezaugarriak kontuan izango ditugu. Dena den, haurrak lotzeko sistema egoki batek bere funtzioa eraginkortasunez bete dezan, ezinbestekoa da HLS umearen altuerarako eta pisurako egokia izatea, ibilgailuan behar bezala jarrita egotea eta adingabekoa ere posizio egokian egotea. Horretarako jarraibide erabilgarri batzuk aurkituko dituzu hemen.

Gogoratu behar dugu familiako ereduak imitatuz ikasten dutela haurrek lehendabiziko bizitza-urteetan. Horrenbestez, segurtasun-uhala erabili behar duzue, zuen seme-alabei ere segurtasun-gailua erabil dezaten eskatzeko. Gure ohiturak haienak izango dira.

135 CM EDO GUTXIAGO NEURTZEN DUTEN ADINGABEAK



Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 117. artikulua. (indarrean 2015eko urriaren 1etik aurrera)

Ibilgailua

9 eserlekura artekoa

Aurreko eserlekuak

DEBEKATUTA DAGO 135 CM EDO GUTXIAGO NEURTZEN DUTEN ADINGABEAK GARRAIATZEA

SALBUESPENAK

- Ibilgailuak atzeko eserlekurik ez izatea.
- Atzeko eserleku guztiak okupatuta egotea, lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- Atzeko eserlekuetan haurrak lotzeko sistema guztiak ezin instalatu ahal izatea.

Kasu horietan, ibilgailuak aurreko airbaga badu, haurrak bizkarrez jartzeko lotze-sistemak erabil daitezke, betiere airbaga desaktibatuta.

Atzeko eserlekuak

Haurrak lotzeko sistema homologatuekin.

9 eserleku baino gehiago

Haurrak lotzeko sistema homologatuekin.

3 urteko edo gehiagoko bidaia-rik:

Haurren neurri eta pisura egokitutako lotze-sistemarik ez badugu, segurtasun-uhalak erabili behar dira, baina haien neurri eta pisura egokituta betiere.

Instalazioa

Ibilgailuan haurrak lotzeko sistema instalatzeko, fabrikatzaileak emandako argibideak jarraituko ditugu beti. Horiek eskuliburu batean, eskuorri batean edo argitalpen elektronikoan egongo dira. Argibideetan azalduko digute nola eta zer ibilgailutan instala daitezkeen segurtasunez HLSak.

Arau-hausteak

Arau-hauste larritzat edo oso larritzat joko da segurtasun-uhalak eta haurrak lotzeko homologatutako bestelako sistemak instalatuta ez izatea edo ez erabiltzea.

135 CM BAINO GEHIAGO NEURTZEN DUTEN ADINGABEAK



Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 117. artikulua. (indarrean 2015eko urriaren 1etik aurrera)

Ibilgailua

9 eserlekura artekoa	Aurreko eserlekuak Segurtasun-uhalarekin. GOMENDIOAK Hiru euskarriko segurtasun-uhalek adingabeak babesten dituzte ibilgailuaren eserlekuan eserita daudenean, belaunak eserlekuaren ertzean tolesteko nahikoa altuera dutenean, lekutik mugitu behar izan gabe. Gomendagarria da aulkitxoa erabiltzea adingabeek 150 cm neurtu arte, altuera hori baita segurtasun-uhalak bere funtzioa era eraginkorrean betetzeko behar duen gutxieneko altuera.	Atzeko eserlekuak Segurtasun-uhalarekin.
9 eserleku baino gehiago	Segurtasun-uhalarekin.	
Arau-haustekak	Arau-hauste larritzat edo oso larritzat joko da segurtasun-uhalak eta haurrak lotzeko homologatutako bestelako sistemak instalatuta ez izatea edo ez erabiltzea.	

2.- AUKERATU: AULKI MOTAK

AULKIAK PISUAREN ARABERA

ECE R44/04 homologazioa

0-13 KG
0. ETA 0+
TALDEAK



9-18 KG
1. TALDEA



15-36 KG
2. ETA 3.
TALDEAK



Kokapena

Martxaren kontrako noranzkoan

Martxaren noranzkoan edo
martxaren kontrako noranzkoan

Martxaren noranzkoan

Gaur egun haurrak lotzeko merkatuan dauden sistemetako batzuk martxaren noranzkoan instalatu behar dira; beste batzuk, aldiz, martxaren kontrako noranzkoan. Horregatik, fabrikatzailearen argibideak jarraitu behar dira, sistema era egoki eta seguruan instalatzeko.

0-13 KILOKO UMEENTZAKO AULKIAK 0 eta 0+ taldeak

ECE R44/04 homologazioa

Martxaren kontrako noranzkoan jartzen dira



Segurtasuna

Martxaren kontrako noranzkoan jartzen diren aulkiek martxaren noranzkoan jartzen direnek baino hobeto babesten dituzte haurraren burua, lepoa eta bizkarrezurra. Haurrak talde honetako aulkien gehieneko pisua gainditzen duenean edo burua aulkia berrakaldea baino gorago geratzen zaionean, aulkia aldatzeko momentua izango da.

Nola jarri aulkia ibilgailuan

Aulkiok (salbuespenak **salbuespen**) atzeko eserlekuetan ipini behar dira **ISOFIX**, sistemaren bidez heltzen dira sistema hori duten ibilgailuetan, edo ibilgailuaren hiru euskarriko segurtasun-uhalarekin bestela.

Haurtxoa nola jarri

Aulkira lotu behar da bost euskarri-puntuak arnes batekin (sorbaldak, aldakak eta hanken artean). Arnasaren goiko zintak haurtxoaren sorbalden parean jarri behar dira.



INSTALAZIOA ISOFIXEKIN
(BIDEA)



INSTALAZIOA ISOFIX GABE
(BIDEA)

Gomendioak

Baldin eta **ISOFIX** badaukazu, egiaztatu euskarriak ondo lotuta daudela eta **Top Tether** edo **Eusteko Hanka** ere behar bezala instalatuta daudela. **ISOFIX** ez baduzu, ziurtatu aulkia automobileran ondo helduta geratzen dela uhala ondo tenkatuz; gomendagarria da hori noizean behin egitea. Izan ere, denborarekin eta bibrazioekin ibilgailuaren segurtasun-uhalak askatzeko joera dute.

Aulki guztiak ondo instalatzeko, beharrezkoa da fabrikatzailearen argibideak jarraitzea beti.

9-18 KILOKO UMEENTZAKO AULKIAK 1. taldea

ECE R44/04 homologazioa

Martxaren noranzkoan edo martxaren kontrako noranzkoan jartzen dira



Segurtasuna

Talka gertatzen bada, aulkiaren arnesak aurreranzko mugimendua absorbatzen du, eta euskarriek (ISOFIX eta Top Tether edo Eusteko Hanka) edo segurtasun-uhalak aulkitxo bere lekuan mantentzen dute.

Aulkia ibilgailuan nola jarri

Aulki hauek (salbuespenak salbuespen) atzeko eserlekuetan ipini behar dira. ISOFIX sistemaren bidez heltzen dira sistema hori duten ibilgailuetan, edo ibilgailuaren hiru euskarriko segurtasun-uhalarekin bestela.

Haurra nola jarri

Aulkira lotu behar da bost euskarri-puntuko arnes batekin (sorbaldak, aldakak eta hanken artean). Arnasaren zintek bere gorputzari ondo estututa eta sorbalden parean jarrita egon behar dute.



INSTALAZIOA ISOFIXEKIN
MARTXAREN NORANZKOAN
(BIDEA)



INSTALAZIOA ISOFIXEKIN MARTXAREN
KONTRAKO NORANZKOAN
(BIDEA)



INSTALAZIOA ISOFIX GABE
(BIDEA)

Gomendioak

Baldin eta ISOFIX badaukazu, egiaztatu euskarriak ondo helduta daudela eta Top Tether edota Eusteko Hanka ere ondo instalatuta daudela. ISOFIX ez baduzu, ziurtatu aulkia kotxeari ondo helduta geratzen dela uhala ondo tenkatuz; gomendagarria da hori noizean behin egitea. Izan ere, denborarekin eta bibrazioekin ibilgailuaren segurtasun-uhalek askatzen joateko joera dute.

Haurrak besoak arnesetik ateratzen baditu, gelditu eta konpondu arazoa. Arnasa ondo tenkatuta badago, ezingo ditu besoak atera eta era seguruan bidaia egin.

Aulki guztiak ondo instalatzeko, beharrezkoa da fabrikatzailearen argibideak jarraitzea beti.

15-36 KILOKO UMEENTZAKO AULKIAK 2 eta 3 taldeak

ECE R44/04 homologazioa

Ibilgailuaren martxaren noranzkoan jartzen dira



Segurtasuna

Aulki hauek gorago joateko aukera ematen diote haurrari, ibilgailuaren segurtasun-uhala era egokian erabiltzeko beharrezko altuerara igoz. Segurtasun gehiago izateko erabili bizkarraldea daukatenak: babes gehiago ematen dute eta erosoagoak dira.

Aulkia ibilgailuan nola jarri

Aulki hauek (salbuespenak salbuespen) atzeko eserlekuetan ipini behar dira. Ibilgailuaren hiru euskarriko segurtasun-uhalarekin heltzen dira, edo bestela **ISOFIX** sistemaren bidez sistema hori duten ibilgailuetan. Ibilgailuaren segurtasun-uhalak berak eusten die haurrari eta aulkari.

Haurra nola jarri

Uhalaren banda diagonal haurraren lepauztaitik pasa behar da, sorbaldaren gainetik eta lepoa ukitu gabe. Banda bertikala ahalik eta beheren jarri behar da, aldaken gainetik, izterren gainean eta inoiz ere ez triparen gainean.



INSTALAZIOA
(BIDEA)

Gomendioak

Uhala lepoaren eta sorbaldaren muturraren artean kokatu. Uhala lepoaren gainetik geratzen bada, lesioak larriki izango dira, istripurik gertatzen bada, eta sorbaldatik kanpo geratzen bada, uhala irristatu egingo da, eta ez du haurra helduko. Ahal dela, ez eraman haurra jasogailuarekin bakarrik. Bizkarraldeak babesa ematen du talka albotik gertatzen den kasuetan, eta jasogailuak ez du halakorik. Baldin eta **ISOFIX** badaukazu, egiaztatu euskarriak ondo lotuta daudela.

Aulki guztiak ondo instalatzeko, beharrezkoa da fabrikatzailearen argibideak jarraitzea beti.

AULKIAK ALTUERAREN ARABERA (I-SIZE)

ECE R129 homologazioa



Segurtasuna

Aulki hauekin derrigorrezkoa da haurrak martxaren kontrako noranzkoan joatea, haurrak 71 cm baino gutxiago neurtzen badu (15-18 hilabete inguru). Horren helburua da lepoko eta buruko lesioen kopurua gutxitzea. Aulkitxo batzuek martxaren kontrako noranzkoan erabiltzeko aukera ematen dute 105 cm-ko altuera duten umeekin ere (4 urte inguru).

Aulkia ibilgailuan nola jarri

Aulki hauek (salbuespenak **salbuespen**) atzeko eserlekuetan ipini behar dira. Ibilgailuaren **ISOFIX** euskarriekin eta **Eusteko Hankarekin** edo **Top Tether** sistemarekin heltzen dira.

Haurra nola jarri

Aulkira lotu behar da bost euskarri-puntuako arnes batekin (sorbaldak, aldakak eta hanken artean). Arnasaren goiko zintak haurtxoaren sorbalden parean jarri behar dira.



INSTALAZIOA
(BIDEOA)

Gomendioak

Egiaztatu euskarriak ondo lotuta daudela eta **Top Tether** edo **Eusteko Hanka** ere behar bezala instalatuta daudela.

Aulki guztiak ondo instalatzeko, beharrezkoa da fabrikatzailearen argibideak jarraitzea beti.


3.- EUSTEKO SISTEMAK

ISOFIX



Haurren aulkitxoak instalatzeko sistema erraz eta azkar bat da ISOFIX, eta ikus-entzunezko laguntzekin dator. ISOFIXekin ez da beharrezkoa segurtasun-uhalak erabiltzea, eta aulkitxoak eta ibilgailuaren barne-txasisa era sendo eta aldaezinean lotzen ditu.

Aulkitxoak lotzeko, ibilgailuaren atzeko eserlekuetako bizkaraldearen eta esertzeko lekuaren artean dauden euskarriak erabiltzen dira.



Gaur egun, ibilgailu gehienek sistema hau dute instalatuta, eta derrigorrezkoa da 2006tik aurrerako modelo berrietan. Muntatzeko oso erraza da, eta hori du abantailarik handiena, aulkitxoak jartzea eta kentzea errazago egiten duenez, akats gutxiago egiten direlako.

Segurtasun-uhak bidezko euste-sistema tradizionalan, talka dagoenean, aulkitxoak ISOFIXekin baino aurrerago mugitzen da.

Nola jakin zure ibilgailuak ISOFIX duen?

Zure autoak ISOFIX duen jakiteko hiru bide daude:

- 1- Kontsultatu ibilgailuaren erabilera-eskuliburua edo fabrikantearen webgunea.
- 2- Begiratu ibilgailuaren eserlekuetan ISOFIX hitza idatzita dagoen edo horrelako logotipoa daukaten:



- 3- Sartu eskua atzeko eserlekuetako eserlekuaren eta bizkaraldearen arteko tartean. Tarte bakoitzean altzairuzko bi eraztun aurkitzen badituzu, hori da ISOFIX euste-sistema.

Zure ibilgailuak instalazio-sistema hau badauka, jakin behar duzu ISOFIX duen edozein aulkixok badituela bi luzapen gogor ibilgailuko eserlekuaren altzairuzko eraztunetan lotzeko, eta beste euste-puntu bat aulkia aurrera eror ez dadin. Euste-puntu hori jarraian azaltzen diren bi gailuetako batera lotzen da:

TOP TETHER



EUSTEKO HANKA




Euskarri guztiak autoaren txasisari itsatsiak daude. Horrela, zailagoa da aulkia mugitu edo iraultzea, istripua gertatzen bada.

TOP TETHER



Euskarri unibertsal bat da, alegia, **ISOFIXekin** lotu daitekeen edozein aulkitxo Top Tether-ekin bateragarria da.

Segurtasun-aulkiaren goiko zatia maletategira edo eserlekuaren atzekaldera edo, modelo batzuetan, autoaren beste puntu batera heltzeko uhal bat du.



Zure ibilgailuaren eskuliburuan ikus dezakezu Top Tether-a duen ala ez. Askotan, euskarri hau Top Tether logoarekin adierazita egoten da.

ISOFIX sistema duten aulkiek aurrerantzako errotazio-mugimendua egiten dute istripu frontala dagoenean, eta Top Tether-ak efektu hori leuntzen du.



INSTALAZIOA
(BIDEOA)

EUSTEKO HANKA



Eusteko hankak hirugarren euskarri bat jartzeko aukera ematen du **Top Tether** sistema instalatzerik ez dagoenean. Sistema honekin, askoz zailagoa da aulkia mugitzea, istripua gertatzen bada.

Euskarri semi-unibertsal bat da. Semi-unibertsal esaten zaio ez dagoelako ibilgailu guztiekin homologatuta. Instalatu nahi baduzu, kontsulta ezazu zer ibilgailurekin den bateragarria (modelo eta marka).



Garrantzitsua da gailu hau azpiko konpartimentua duen zoruaren gainean ez instalatzea, eraginkortasuna kenduko bailioke eta, ondorioz, aulkitxoaren segurtasuna txikitu.



INSTALAZIOA
(BIDEOA)

HOMOLOGAZIO-ETIKETAK

Haurrak lotzeko sistema guztiek homologatuta egon behar dute. Gaur egun, bi homologazio-araudi daude indarrean:

→ ECE R44/04

→ ECE R129 (I-SIZE)


Bi araudi hauek gutxienez 2018ra arte egongo dira indarrean.

Homologazio-araudia edozein dela ere, produktuek hurrengo bereizgarrietan agertzen direnen antzeko homologazio-etiketa bat eraman behar dute. Horien bidez identifikatu ahal dira, besteak beste, fabrikatzailea, araudia eta homologazio-zenbakia, HLsren zenbakia, eta adingabekoaren pisu edo altuera egokia.

ECE R44/04



ECE R129(I-Size)



ECE R44/04

ECE R44 araudia 1982an onartu zen, eta ordutik hona lau aldiz berrikusi da, hobetzeko eta berrikuntza tekniko berriak barne hartzeko. Hori adierazten dute azken bi digituek. ECE R44/04 araudia 2005eko ekainean jarri zen indarrean.

Haurrentzako aulkitxoaren segurtasunaren analisia egiteko, honako probak egin behar zaizkie aulkiei, besteak beste:

- Aurrez aurreko talka proba bat, 50 km/h abiaduran, desplazamendua eta haurraren gorputzaren gaineko indarrak neurtzeko (burua, lepoa, bularra...)
- Atzeko talka proba bat 30 km/h abiaduran.
- Hainbat proba arnesa ixteko sistemari: istripua eta gero erraz ireki ahal izateko, baina aldi berean, egoera normaletan, haurrak ezin dezan oso erraz askatu.
- Eserlekuaren diseinuaren analisi bat, ertz bizirik edo babesik gabeko pieza gogorrik ez daudela bermatzeko.
- Uhalaren edo eserlekuaren arnesaren ikerketa bat altuera eta pisu desberdineko umeekin erabil daitekeela probatzeko.
- Bestelako baldintzak, adibidez suaren aurrean materialek duten jokabidea, metalezko parteen korrosioaren aurreko erresistentzia, hainbat osagarriren toxikotasuna...

ISOFIX sistema duten ibilgailu guztietan jar daitezke ECE R44/04 arauarekin homologatutako aulkitxoak.

ECE R129 (I-SIZE)

I-Size 2013ko uztailetik dago indarrean, eta aulkitxoak eta horiek instalatzeko egokiak diren ibilgailuak arautzen dituen araudi europar bat da.

Dena den, I-Size ez duten ibilgailuetan ere erabili ahal dira aulki horiek, baldin eta ibilgailuak ISOFIX euskarria badauka.



Homologazio-araudi honek adingabeen segurtasuna handitzen du hainbat alorretan:

- Istripuetan alboko talka gertatzen denerako segurtasuna hobetzen du.
- Aulkia ibilgailuan egoki lotuta egoteko probabilitatea handitzen du.
- Adingabeek martxaren noranzkoaren kontra bidaiatu behar duten denbora-tartea handitzen du, gutxienez 71 cm neurtu arte (15-18 hilabete gutxi gorabehera). Aulkitxo batzuek martxaren noranzkoaren kontra erabiltzeko aukera ematen dute 105 cm-rainoko altuerako umeekin (4 urte inguru). Martxaren noranzkoaren kontra bidaiatzeak umea babestuko du lepoko eta buruko lesioak izateatik, harik eta istripuetako talken indarra hobeto jasateko bezain sendoa izan arte (15 hilabetetik aurrera gutxi gorabehera).

Halaber, I-Size duen ibilgailu batek baldintza hauek bete behar ditu:

- Gutxienez I-Sizeko bi eserleku izatea, **ISOFIX** euskarriekin eta **Top Tether** euskarri batekin.
- Ibilgailuaren zoruak aulkitxo baten **Eusteko Hanka** bat instalatzeko diseinaturia egon behar du.
- I-Size aulkitxo bat instalatzeko nahikoa leku izan behar du, eta haurrari martxaren noranzkoaren kontra bidaiatzeko aukera eman behar dio gutxienez 71 cm-ko altuera izan arte.
- Informazio eskuliburuan, I-Size araua zehatz-mehatz azaldu behar da.

6.- OHIKO GALDERAK



Ibilgailu partikularrak

Haur bat eduki berri dut eta 0+ taldeko aulkitxo bat oparitu didate. Nola eta non jarri behar dut haurra?

Haurrak aulkitxoan joan beharko du, ibilgailuaren atzeko eserlekuan. Aulkitxoa martxaren kontrako noranzkoan jarri beharko duzu. Gainera, ziurtatu aulkitxoaren homologazio-etiketak indarreko araudia betetzen duela.

Aulki bat erosi nahi dut sei urteko seme-alabarentzat.

Adina kontuan hartu behar dut aulkitxorik seguruena erosterakoan?

Adina orientagarria izan daiteke, baina garrantzitsuagoa da pisua eta altueraren arabera segurtasun-sistema aukeratzea.

Duela gutxi istripu bat izan nuen. Ez zitzaigun ezer gertatu, baina gure seme-alabaren aulkiak kolpe bat jaso zuen.

Aldatu egin behar dut?

Istripu baten ondoren, hobe da beti haurrak lotzeko sistema aldatzea. Zalantzarik baduzu, jo fabrikatzailearengana edo aulkitxoa erosi zenuen dendara, oraindik eraginkorra den jakiteko azterketa bat egin diezaioten.

Aulki bat erosi berri dut seme-alabarentzat eta zalantza batzuk ditut. Zein da posiziorik seguruena kotxean?

Atzeko eta erdiko eserlekua da haurrak lotzeko sistema instalatzeko seguruena, betiere hiru euskarriko segurtasun uhala badauka. Ibilgailuak bi eserleku-ilara baino gehiago badauzka, komenigarria da aulkia erdiko ilaran jartzea, istripuen eragina leuntzeko.

Oso prezio ona duen aulki bat aurkitu dut merkatuan, baina ez dut homologazio-etiketa aurkitzen.

Zer egin behar dut?

Aulkiak homologatua egon behar du, indarrean dauden segurtasun-arauak betetzen dituela bermatzen baitu horrek. Ziurtatu aulkiak baduela etiketa laranja bat ECE R44/04 kodearekin edo ECE R129 kodearekin. Indarreko araudiak ezartzen dituen segurtasun-baldintzak betetzen dituela adierazten du horrek.



Ibilgailu partikularrak

6.- OHIKO GALDERAK



Ibilgailu partikularrak

2 eta 11 urte bitarteko hiru seme-alaba dauzkat. Zeintzuk dira nire betebeharrak haurrak lotzeko sistemari buruzko araudiari dagokionez?

135 cm edo gutxiago neurtzen duten adingabeak

Aurreko eserlekuak

DEBEKATUTA

Salbuespenak:

- Ibilgailuak atzeko eserlekurik ez izatea.
- Atezko eserleku guztiak okupatuta egotea lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- Atezko eserlekuetan haurrak lotzeko sistema guztiak ezin instalatu ahal izatea.

Kasu horietan, ibilgailuak aurreko airbaga badu, haurrak bizkarrez jartzeko lotze-sistemak erabil daitezke, betiere airbaga desaktibatuta.

Atzeko eserlekuak

Haurrak lotzeko sistema homologatuekin.

135 cm baino gehiago neurtzen duten adingabeak

Aurreko eserlekuak

Segurtasun-uhalarekin.

Atzeko eserlekuak

Segurtasun-uhalarekin.

+ Ibilgailu partikularrak

6.- OHIKO GALDERAK



Ibilgailu partikularrak

Haurrak lotzeko sistemekin bidaiatu behar duten hiru seme-alaba dauzkat.

Nola jar ditzaket haien aulkitxoak ibilgailuan?

Indarreko araudiaren arabera, 135 cm edo gutxiagoko hurrek debekatuta dute aurreko eserlekuetan joatea, eta atzeko eserlekuetan joan behar dute pisu eta altueragatik dagozkien lotzeko sistemak erabiliz. Aurreko eserlekua erabili ahal izango dute honako baldintzetako bat betetzen den kasuetan:

- Ibilgailuak atzeko eserlekurik ez izatea.
- Atzeko eserleku guztiak okupatuta egotea lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- Atzeko eserlekuetan haurrak lotzeko sistema guztiak ezin instalatu ahal izatea.

Kasu horietan, ibilgailuak aurreko airbaga badu, haurrak bizkarrez jartzeko lotze-sistemak erabil daitezke, betiere airbaga desaktibatuta.

Zuen ibilgailuaren atzeko eserlekuetan ez badira hiru aulkitxoak sartzen (baina bai bi aulki eta heldu bat segurtasun-uhalarekin), orduan hirugarren aulkitxoa aurreko eserlekuan jar daiteke. Kasu horietan, gomendatzen da haur guztietan zaharrenaren aulkitxoa jartzea aurreko eserlekuan. Bestalde, gogoratu zure ibilgailuak aurreko airbaga badu deskonektatu egin behar duzula atzera begira doan aulkitxo bat instalatu ahal izateko.

6.- OHIKO GALDERAK




Eskola-garraioa

Gure seme-alabak 135 cm baino gutxiago neurtzen du. Nola bidaiatu behar du?

Zuen seme-alabak hiru urte edo gehiago baditu eta ibilgailuak bere neurri eta pisura egokitutako haurrak lotzeko sistemarik ez badu, segurtasun-uhalak erabili behar ditu, bere neurri eta pisurako egokiak badira.

Eskola-garraioa egiteko baimena duen ibilgailuak segurtasun-uhalik edo homologatutako bestelako eusteko sistemarik ez badu, zuen seme-alabak inolako sistemarik gabe bidaiatuko du.

Eskola-garraioa egiteko baimena duen autobusak eusteko sistema homologatuak baditu, zuen seme-alabak erabili behar izango ditu, bere neurri eta pisurako egokiak badira. Gaur egun, badaude merkatuan autobusetan erabiltzeko espresuki diseinaturako euste-sistemak. Instalazioa ondo eta era seguruan egiteko, jarraitu fabrikatzailearen argibideak.



Gure seme-alabak familiako ibilgailuan erabiltzen duen aulki bera erabili ahal du eskolako autobusean?

Auto-aulkiak ez du autobusetarako balio. Horren [homologazioa](#) edozein dela ere, kontuan hartu behar duzu aulki hori ez dela autobusetako eserlekuetarako diseinatu, eta aulki horri ez zaizkiola autobusetako eserlekuetarako segurtasun-probak egin.

Gure seme-alaba joaten den ikastetxeak gomendatu digu, autobusez joaten denean arnes bat erabiltzeko, haurrak ibiltzen hasten direnean erabiltzen direnak bezalakoa. Hori konponbide edo aukera ona al da seguru bidaiatzeko?

Argi dago gomendio horren helburua dela gurasoek beren seme-alaben babesaren inguruan izaten duten sentsibiltateari eta kezkarri erantzutea, baina jakin behar duzu horrelako sistemak, beren bilgarrietan azaltzen den moduan, ez direla haurrak lotzeko sistemak, eta beraz, ez direla bide-segurtasun arloko elementu gisa erabili behar.

+ Eskola-garraioa

6.- OHIKO GALDERAK



Eskola-garraioa

Zer gertatzen da segurtasun-uhalak edo homologatutako beste euste-sistemak egokiak ez badira gure seme-alabaren neurri eta pisurako?

Kasu horretan, indarrean dagoen araudiaren arabera, zuen seme-alabak inolako eusteko sistemarik gabe bidaiatu ahal izango du.

Gure seme-alabak 135 cm baino gehiago neurtzen du. Nola bidaiatu behar du?

Eskola-garraioa egiteko baimena duen ibilgailuak segurtasun-uhalik edo homologatutako bestelako eusteko sistemarik ez badu, zuen seme-alabak inolako sistemarik gabe bidaiatuko du.

Eskola-garraioa egiteko baimena duen autobusak segurtasun-uhalak edo homologatutako beste euste-sistema batzuk baditu, zuen semeak/alabak erabili egin beharko ditu nahitaez.

Eskola-autobusek segurtasun-uhalak izan behar dituzte?

2007ko urritik aurrera lehen aldiz matrikulatu diren autobusek soilik izan behar dituzte segurtasun-uhalak.

6.- OHIKO GALDERAK



Taxiak

Taxiek haurrentzako aulkiak eraman behar dituzte?

Indarrean dagoen araudiaren arabera, taxiek hiriarteko desplazamenduetan soilik erabili behar dituzte haurrak lotzeko sistema.

Gure seme-alabak 135 cm baino gutxiago neurtzen du. Nola joan behar du taxi batean?

Desplazamendua hiri-trafikoan edo hiri handietako hiri-eremuetan egiten bada eta taxiak haurrak lotzeko sistema homologatua badauka, eta, horrez gain, gailu hori zuen seme-alabaren neurrirako eta pisurako egokia bada, atzeko eserlekuan joan ahal izango da bakarrik. Gailu hori ez badauka, araudiaren arabera, adingabeak taxian bidaia dezake, baina atzeko eserlekuan joan beharko du beti.

Desplazamendua hiriarteko trafikoan egiten bada, zuen semeak/alabak haurrak lotzeko sistema homologatua erabili beharko du, eta gailu horrek bere neurrirako eta pisurako egokia izan beharko du.

Zuen seme-alabaren segurtasunerako, hiri barruko desplazamenduetan, ahalegindu atzeko eserlekuetan segurtasun-uhalak dituzten taxiak erabiltzen. Horrez gain, haurrak lotzeko sistema homologatuak badituzte, oraindik segurtasun handiagoa eskainiko dute.

6.- OHIKO GALDERAK



Haurdunaldia eta segurtasun-uhala

Haurdun nago, eta ez dakit segurtasun-uhala jarri behar dudan ala ez.

Araudiaren arabera, haurdun dauden emakumeek segurtasun-uhala erabili behar dute. Horren justifikazioa argia da: uhala jarrita ez eramateagatik emakumeak lesioa izateko edo fetua galtzeko duen arriskua handiagoa da, uhala jarrita eraman eta istripua izanez gero umetoki barneko lesioa izateko arriskua baino.

Uhala egokiro erabili behar da haurdunaldiaren edozein fasetan. Beheko bandak abdomenaren azpian jarrita egon behar du, eta, goiko bandak, berriz, diagonalean, bularraren eta sabelaren gainean. Merkatuan zenbait sistema daude, uhala jartzea errazteko.

Airbaga arriskutsua da haurdunaldian?

Ez, betiere gorputzaren eta airbagaren arteko tartea 25 cm ingurukoa bada. Edonola ere, airbagak osatu egiten du segurtasun-uhala, baina ez du ordeztzen. Izan ere, airbagak ez du bere helburua betetzen uhala behar bezala jarrita ez badago. Halaber, bolantearen inklinazioa egokitu ahal bada, kromeni da bularrerantz zuzentzea, eta sabelaren parean ez egotea.